

Serge Blanco jokalaria lapurtarra, orain urte batzuetako irudian, munduko Barbariensen partidu bateko jokaldi batean.



# Ikusgarritasunaren eredu

**SERGE BLANCORI SARIA.** Miarriztarra «mendeko Frantziako jokalaririk onena» hautatu du Midi Olympique astekari adituak

Koldo Alduntzin | DONOSTIA

**E**uskal errugbia gaztea da nazioarteko errugbiarekin alderatuta, baina euskal errugbilariak aspalditik hasi ziren beren historia mamitsua hizki handiz txertatzen. Batzuek aspaldi utzi zioten galtza motzak janzteari: Jean-Dauger, Etxabe, Mitxel Zelaia, Azaret, Ugartemendia, Dospital, Ondarts, Belaskain, Perrier, Condom, Lagisquet, Hontas... Beste batzuek jokoan dihardute oraindik: Gonzalez, Betsen... Horien guztien eredu, ordea, Serge Blanco miarriztarra da, «hogeigarren mendeko Fran-

tziako jokalaririk onena» hautatu dutena; hain zuzen, Midi Olympique astekari adituak hautatu du.

1871n jokatu zen nazioarteko lehen norgehiagoka Eskozia eta Ingalaterraren artean eta 1903an jokatu zuten Australiak eta Zeelanda Berriak beren lehen partida. Geroxeago hasi zen errugbia Euskal Herrira heltzen, eta gehienbat, Ipar Euskal Herrira. Hurbilagora etorrita, 1958ko abuztuaren 31n Serge Blanco sortu zen Caracasen (Venezuela), baina berehala Miarriztera etorri zen, eta hor bizi izan da beti.

Gaztetxotik hasi zen errug-

bian, eta Miarritzen eman du bizitza osoa. Egun, Lapurdiko talde horri atxikiturik dago, baina Frantziako Liga Profesionaleko burua denez, honek kentzen dizkio loak. Horrez gain, Hendaiaiko Serge Blanco Talasoterapia Zentroaren burua ere bada, eta han bizi da emaztea eta bi haurrekin.

## Iraganari so gutxi berak

Errugbilari ezohiko eta miresgarria izan zen Blanco. Lasteraldi luze bezain indartsuak egin ohi zituen, eta entsegu ikusgarriak. Miarrizterekin 111 entsegu egin zituen, eta Frantziako selekzioaren 38 —erre-

korra. Miarrizterekin 311 partidatan jokatu zuen, eta guztira, 1.207 puntu egin zituen. Mundu osoan ezagutu dituzte bere dohain ikaragarriak, 1980 eta 1991 bitartean 93 aldiz izan baitzen internazionala.

Nekaezina zen zelaian, eta sena eta talentua zituen ardatz. Bestetik, bat-bateko jokoa eta irekia zituen gustuko. «Horregatik, ez ditut batere maite joko arau berriak, joko bizi, alai eta irekiaren kontrakoak baitira; hori izan da mendeko gauzarik txarrena», esan izan du lapurtarrak. Mendeko onena zer izan den ere aipatua du: «Munduko I. Kopa, errugbiaren aitortza izan baitzen». Hala ere, «frustrazioa ere izan zen, hierarkia eragin baitzuen».

Blancok ez dio gehiegi begiratzen iraganari, eta «etxean,

haurrek ikusten dituzte garai hartako partidak», ez berak. Gaur egun, Miarritzen bertan ditu errugbikiderik handienak: Mitxel Zelaia bere maisua, Lagisquet eta Rodriguez entrenatzaile eta selekziokide ohiak eta Gonzalez kapitaina. Sarritan egoten da taldearen entrenamendua ikusten, Aguilera, eta ia beti sakelako telefonoa hartu eta utzi. Hori bai, denekin hitz egiten du.

Izan ere, errugbilari onena izateaz gain, lagunkoi eta adiskidea da denekin. Horiek dira hain zuzen, berak gehien maite dituen ezaugarriak. Orain langintza bihurria du profesionaltasuna behar bezala bideratzen, eta bitartean, espero dugu euskal errugbiak ez ahanzte, eta ohi bezala: «Agur jauna, ontsa zara?», esaten jarraitzea.

**AIZKORA.** Bihar hasiko da Bi-bitako I. Urrezko Aizkora, Donezteben (12:30)

## Urrezko bikoaren bila bihartik

Koldo Alduntzin | DONOSTIA

**AIZKORAK** badu azkenean Euskal Herri osoko aizkolariek esku har dezaketen bi-bitako txapelketa handi bat, orain arte Nafarroako eta Arabako Txapelketak baikenituen, baina beste maila batean. I. Urrezko Aizkora jarriko da abian bihar, Donezteben (Nafarroa), eta lehen jardunaldian, Mindegia-Larretxea nafarrak, Olasagasti-Arrospide gipuzkoarren kontra ariko dira (12:30). Aipaturiko aizkolariek Euskal Herriko Txapelketako finala jokatu zuten,

eta baita bigarren saioan ariko den Olasagasti ere; Arrospide gonbidatu egin dute.

Bistan da txapelketa erakarria egiten ahalegindu dela Besagain, eta oso langintza berezia izango dute aizkolariek. Saikapen fasean, denak denek kontra jardungo dute, eta bikote bakoitzak lau saio jokatu ditu. Bi proba izango ditu saio bakoitzak: abiadura eta txanda librekoa, eta puntutara erabakiko da jardunaldiko garailea. Aurreneko bi sailkatuek jokatu dute finala, eta txapelkunek milioi erdia jasoko dute.

## EGUTEGIA

**ABENDUAK 8:** (Donezteben)

Mindegia-Larretxea / Olasagasti-Arrospide

**ABENDUAK 12:** (Zumarragan)

Olasagasti-Arrospide / Peñagarikano-Nazabal

**ABENDUAK 22:** (Arrasaten)

Peñagarikano-Nazabal / Mindegia-Larretxea

**ABENDUAK 23:** (Gasteizen)

Mindegia-Larretxea / Peñagarikano-Nazabal

**ABENDUAK 30:** (Elgoibarren)

Peñagarikano-Nazabal / Olasagasti-Arrospide

**URTARRILAK 6:** (Zehazteke)

Olasagasti-Arrospide / Mindegia-Larretxea

**URTARRILAK 14:** (Azeptatzen)

Finala (oraindik erabat zehaztu gabe

finalaren eguna).



# Athletic Club

## BAZKIDEENTZAKO OHARRA

Bazkide Txartela berritzeko beharrezko agiriak (oraintsuko argazki bi, nortasun agirirako moduak, NAN fotokopia eta harremanetarako telefonoa) oraindik ere eman ez dizkiguten Athletic Clubeko bazkideei jakinarazten diegu abendu honetan ahalik eta lasterren bidali behar dituztela klubera. horretarako, agiriok eman ahal izango dituzte Ibaiganeko bulegoetan (10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era), San Mames zelaiko leihatiletan, sarrerak saltzen diren egun eta orduetan, edo Oviedo, Aurrera de Vitoria eta Valentzia taldeen aurkako partidu-egunetan, San Mamesera sartzeko atean egongo diren langileei, gutunazal batean sarturik.

## SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Igandea, abenduak 10, 17:00etan

Liga txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB - REAL OVIEDO

TXARTEL SALMENTA

TXARTELDEGIA: SAN MAMES STADIUMean

Ostegunean: 17:30etatik 20:00etara

Larunbatean 10:30etatik 13:30etara eta 17:30etatik 20:00etara

Igandean 10:30etatik 13:00etara eta 15:30etatik aurrera.



Coche Oficial del  
**Athletic Club**

